

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Gasteizko Zabalgana auzoko Aldaia 5. sektoreko plan partzialaren zortzigarren aldakuntzaren proiektua onestea eta hasierako onespena ematea plan partzialaren xedapen-aldaketa horri, RC-22 lursailetik RC-15 lursailera pasatzeko goi solairuetako egoitzetarako 63 metro koadro

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko urriaren 14an egindako ohiko bilkuran:

1. Gasteizko Zabalgana auzoko 5. sektoreko plan partzialaren zortzigarren xedapen-aldaketaren proiektua onestea. Proiektu hori Udaleko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak egin du eta administrazio dosierrean jaso da.

2. Hasierako onespena ematea Gasteizko Zabalgana auzoko Aldaia 5. sektoreko plan partzialaren zortzigarren xedapen-aldaketari, RC-22 lursailetik RC-15 lursailera pasatzeko goi solairuetako egoitzetarako 63 metro koadro.

3. Dosierra jendaurrean jartzea, hogei egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere.

4. Plan Berezia indarrean sartu arte, eta edonola ere, urtebetez gehienez, aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen hirigintza araudian aldaketak eragiten dituen eremuetan edozein onartze-, baimen-eta lizentzia-emate oro bertan behera uztea.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko urriaren 19an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE